

ZARAUTZ / Bost literatur solasaldi izango dira udazken honetan

ZARAUTZ. Zarauzko Sanz Enea kultur etxeko arduradunek bost literatur solasaldi antolatu dituzte udazken honetarako. Irakurzaletasuna bultzatzea dute helburu saio horiek eta liburuak irakur-tzea gustuko dutenekin arratsalde atseginak partekatzea. Lehen solasaldia hilaren 28an (asteazkenean) egingo dute eta Inazio Mujika Iraola idazlearen Gerezi denbora obra arituko dira aztertzen. Euskarazko solasaldia 18.30ean hasi eta 20.00ak arte luzatuko da (saio guztiak ordu berdinean izango dira). Solasaldi irekiak dira eta nahi duenak obraren aleak ditu eskuragarri Sanz Eneako liburutegian.

Aurreko urteko apirilean hasi ziren euskarazko saioak eskain-tzen estreinakoz Bernardo Atxagaren Zeru horiek liburuarekin eta harrera ona izan dute. Hori dela eta, udazken honetan, ostegun honetan hasita, hiru euskarazko literatur solasaldi gidatuko ditu Ane Mayozen dinamizatzaile donostiarrak. Mayozen esanetan, arratsalde 'aberasgarriak' izango dira, izan ere, 'literatur solasaldietako gauzarik politena, bakoitzari liburu berak sentiarazten diona entzutea da'.

'Andu'-ren bisita Urriaren 26an eskainiko dute denboraldi berriko bigarren solasaldia. Egun horretan Zarautzen bizi den Anjel Lertxundi Andu idazlea bertaratuko da saiora, bere Ihes betea obra parte-hartzaileekin aztertzeke asmoarekin.

Udazkenean gaztelerazko bi saio ere izango dira. Bi egun horietan José Luis Cancho arituko da solasaldiak dinamizatzen. Honela, urriaren 13an Paul Auster idazle amerikarraren La invención de la soledad liburuaren inguruan min-tzatuko dira parte-hartzaileak. Azaroaren 10ean berriz, Peter Handke idazle austriarraren Desgracia impenable lana aztertuko dute literatur saiora gerturatzen direnek. Udazkeneko literatur solasaldiekin amaitzeko, azaroaren 23an Arantxa Urretabizkaiaren Koaderno gorria obrari buruz arituko dira hitz egiten irakurleak. Solasaldietara joateko liburuak aurretik irakurtzea gomendatzen dute antolatzaileek, baina nahi duena ere, nahiz eta liburu ez irakurri, obraren inguruko azterketak entzutea gerturatu daiteke.

Irakur gidak

Bestalde, Sanz Eneako liburutegiko arduradunek bi irakur gida prestatu dituztela jakinarazi dute. Honela, alde batetik, Donostiako Zinemaldiko garaian gaudela eta, pelikulen inguruko zerrenda kaleratu berri dute, zaletuen gozamenerako. Oraingo honetan, zine beltza eta suspensezkoa eta garai eta estilo ezberdineko zuzendariak aukeratu dituzte. Gainera, gidan aipatzen diren filmak Zarauzko liburutegian bertan erakusgai eta eskuragarri dituzte interesa dutenek.

Aste honetan bertan kaleratu dute bigarren gida: hilaren 21ean alzheimerren eguna izan zela eta, gaixotasun horren ingurukoa da. Honela, alzheimerra hizpide duten bai haur eta bai helduentzako liburuak lortzeko aukera dago bi liburutegietan. Halaber, gaixotasunaren inguruko DVDak ere jarri dituzte eskuragarri. Gainera, Afagi elkarteak kideek gaitzaren inguruan informatzeko asteburu honetan zehar hiru mahai jarri dituzte Maxi-Eroskin, kale Nagusian eta udaletxeko plazan. Bertan aritu dira banatzen Sanz Eneak prestatutako gidak.

Halaber, Zarauzko kultur etxeko arduradunek dagoeneko neguko ordutegiarekin hasi direla gogoratu diete bertaratzen diren guztiei. Honela, helduen liburutegiak astelehenetik ostiralera 9.00etatik 14.00etara eta 15.30etik 20.00etara zabaltzen ditu ateak eta, larunbatetan, 10.00etatik 13.00etara. Haur liburutegiak eta fonotekak, berriz, 16.00etatik 20.00etara.